



**ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNAREN
KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIAREN PLEGU TEKNIKOAK.**

1. art.- KONTRATUAREN XEDEA.

Agiri honen xedea da Zaldibiako Udalaren jabetzakoa den Udaletxe azpian dagoen Beti Gazte taberna ustiapena, kudeaketa eta mantentze-lanak kontratatzea, lokal sozialeko eta taberna-kafetegiko zerbitzuak eskaintzeko. Era berean, eraikinari dagozkion biltegia eta terraza esleipendunaren eskura jarriko dira (planoa erantsiko da).

Taberna ondoko gunez osatua dago:

- Taberna
- Sukaldea
- Biltegia
- Aldagela
- Komunak

Taberna honetan ematen den zerbitzua, herriko Jubilatuen elkarte bakarraren beharrekin, Beti Gazte Elkarte, uztartzea izango da helburua. Horregatik, jubilatuek lehentasuna izango dute eta herritar guztiak ongi etorriak izango dira tabernan.

2. art.- KONTRATUA ESKURATZEN DUENAREN BETEBEHARRAK.

Tabernaren ustiapenaren zerbitzuak, ondorengo betebeharrak dakar:

- a) Taberna zerbitzurako erabiliko diren instalazio eta lanabesen garbiketa.
- b) Egoitzako instalazio eta lanabesen garbiketa.
- c) Mahaira eta terrazara bere kabuz kontsumizioak eraman ezin dituztenei laguntza ematea.
- d) Taberna, sukaldea, Biltegia, Aldagelak, pasilloa eta Komunen garbiketa eta mantenua.

3. art.- KONTRATUAREN EPEAK ETA MUGAK:

Behin betiko adjudikazioa egiten denetik urte bateko Kontratuko epea izango du, urtero luzatu ahal izango delarik bost urteko mugarekin, edozein alde hilabete aurretik ez badu hala



**ZALDIBIAKO
UDALA**
zaldibia.eus

ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNAREN
KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIAREN BALDINTZA PLEGUA
TEKNIKOA

jakinarazten. Jarraipen batzordeak proposatuta bost urteko muga, hamar urtera luzatu daiteke gehienez urtez urteko luzapenaren bidez.

4. art.- KONTRATUAREN KANONA:

Kontratua eskuratzen duenak, urtez urte dagokion ustiapenaren ondorioz, Zaldibiako Udalari ordainduko dion kanona:

1. Urtea: 100 €/hilabetea
2. Urtea: 100 €/hilabetea
3. Urtea: 100 €/hilabetea
4. Urtea: 150 €/hilabetea
5. Urtea: 150 €/hilabetea

Ordainketa hilabete horretako lehen 10 egunetan burutuko da. Kontratua eskuratzen duenak kontu korrante bat ahalbidetuko dio Udalari kanona kobratu ahal izateko.

5. art.- ORDUTEGIA:

Gutxieneko ordutegia:

- Azarotik apirilera: 10:00 – 22:00
- Maiatzetik urrira: 10:00 – 23:00

Gehienerako ordutegia:

- Eusko Jaurlaritzaren eskumena izanik, zeregin hori eman zaion agintaritzak zehaztutakoa.
- Terrazaren kasuan, Zaldibiako Udalaren terrazaren ordenantzak zehazten duena.

Asteko jai eguna:

Esleipendunak aukera izango du astelehena eta osteguna bitartean jai eguna edo jai bezpera ez den asteko egun batean atsedean hartzeko, taberna itxiz. Egund hau Jarraipen batzordeari (30 art.) proposatu beharko dio denbora nahikoaz bezeroei informazioa helarazteko eta adostasun batera iristeko.

Oporrak: Abuztuko lehen 3 astetan taberna itxi ahal izango da.

6. art.- Esleipendunak berak zuzenean bete beharko ditu Kontratu honetan aipatzen diren lanak. Ez du inolako lan harremanik izango udalarekin, beste hainbeste dagokio kontrata lezakeen langilariarekin, honen Gizarte Segurantzako afiliazioa esleipendunaren kontura izango baita.



Esleipendunak alta eman beharko du Gizarte Segurantzako autonomoetako erregimen berezian, iharduera ekonomikoetako zergan, eta dagozkion beste zerga edo tasetan.

7. art.- ONDORENGO GASTUAK ESLEIPENDUNAREN KONTURA IZANGO DIRA:

- Tabernako (taberna, sukaldea, terraza, aldagela eta almazena) ontzien konponketa eta berriketa, aparailu elektrodomestiko eta beste batzuen mantenu eta konponketa.
- Tabernako eta Beti Gazte elkarteko bulegoko garbitasun, argindar, ura, gasa, hondakinak eta estolderia gastuak.
- Bi urtetik behin, Tabernaren pintaketa/garbiketa sakona (taberna, sukaldea, aldagela, komunak, pasilloa eta almazena).

8. art.- Esleipenduna behartuta egongo da Kontratuak dirauen denboran, zerbitzu eta garbitasun egoki bat ematen instalazio guztietan, udalak honi dagokionez ezartzen dituen arauak betez. Baita ere, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun janariei buruzko xedapen eta arauak bete beharko ditu.

9. art.- HONDAKINAK,

Udalak gai honi buruzko araudian ezarritako moduan kudeatzeko ardura, beti ere, hondakin mota bakoitzaren arabera sailkatuz kasuan kasuko eduki ontzietan.

10. art.- TABERNAREN FUNTZIONAMENDUAREN BARRUKO ORDENA, zabaldu eta ixteko ordutegia, garbitasuna eta lokal eta zerbitzuen osasun baldintzei buruz udalak zaintze eta kontrol lanak egin ahal izango ditu, eta esleipendunari informazioa edo behar duen dokumentazioa eskatu ahal izango dio, iharduerak sortzen dituen edozein motako beharrak betetzen diren edo ez akreditatzeko.

Nolabaiteko akatsik antzemango balitz behar den akta idatziko litzateke, eta lehen aldian idatziz ohartaraziko litzaioke eta leudekeen kalteak ordaintzera behartuko litzateke, eta bigarren aldian kontratua hautsiko litzateke, esleipendunak inolako eskubiderik gabe lokaletik alde egin beharko lukeelarik bertako tresnak utzirik, honek ez liokeelarik salbuetsiko sortu dituen erantzukizunei aurre egiteko.

Udalak erabakiko balu taberna behin behingoz edo behin betirako ixtea, esleipendunak ez luke eskubiderik izango inongo motatako indemnizazio edo konpentsaziorik jasotzeko.

Lokala utziko ez balu, sortu daitezkeen erantzukizun penaletik aparte, udalak edozein organo erabiliz, zigor edo premiamendu neurriak erabili ahal izango ditu, agindutakoa bete dadin.



11. art.- Esleipendunak ezingo du hirugarren bati lagapena utzi udalaren idatzizko baimenik gabe.

12. art.- Esleipendunak ezingo ditu obrak egin Udalaren idatzizko baimenik gabe.

13. art.- Esleipenduna erantzule izango da pertsona edo gauzei sortu daitezkeen edozein kalteengatik nahiz eta iharduera udalaren jabetza edo menpean egon.

14. art.- Udala behartuta dago lokalak, bere instalazio eta altzariak aseguratuzera egokiak diren kopuruetan.

15. art.- Udalak kontratua salatu eta indarrik gabe utzi lezake, plegu honetan zehazten diren baldintzetatik edozein bete gabe utziko balitz.

Era berean, eska diezaioke esleipendunari kontratazio honek sortarazten dituen ekonomia arloko obligazioen ordainketak eguneratuak izatea, ordaintzeke dauden zorrak dagozkien gainkargu eta guzti, premiamendu bidetik kobratu ahal izango direlarik.

16. art.- Lagapenerako zehaztu den denbora bukatutakoan amaituko da kontratua ere, eta esleipenduna behartuta geratuko da alde egitera erabili dituen lokalak eta hauei atxikitutako ondasunak hutsik eta aske uztera, udala ahalmen-duta egongo da hustuketa erabaki eta egiteko.

Kontratuaren luzapenik balego, hau ere bukatu ahal izango da esleipendunak uko egiten duelako, udalari idatzi bat zuzenduz hiru hilabeteko aurrerapenarekin.

17. art.- Udalak argituko ditu baldintza plegu hauek aplikatzerakoan sortu daitezkeen zalantza guztiak eta plegu honetan aurreikusten ez diren edozein zalantzari dagokionean, udaletako kontratazio eta ondasunen arautegiak dituzten ebazpenen bitartez eta indarrean dauden beste xedapen batzuren bitartez arautuko da Kontratua.

18. art.- Baldintza plegua eta beste eranskinak udal bulegoetan aztertu ahal izango dira.

19. art.- Esleipendunak EUSKARAREN EZAGUTZA ETA ERABILERA gaitasuna izatea nahitaezkoa eta ezinbestekoa da, baita jende aurrean lana egingo duten beste pertsonen ere.

20. art.- Behin behineko bermerik ez dute aurkeztuko parte hartzaileek.

21. art.- Behin betiko bermea MILA (1.000,00) €-tako izango da.

Berme horren bitartez erantzun beharko dio kontratu honetako bete beharrak betetzeari.

Udaleko kontratazioa erregelamenduko arauen eta horiek alda zitzaketan ondorengo xedapenen arabera itzuliko da behin betiko berma hori.



22. art.- Lehiaketan parte hartu nahi dutenek, 26 lanegunen epean aurkeztuko dituzte bere proposamenak, eta hauek Udalak aztertuko ditu. Onartutako baremoak aplikatu ondoren, kontratazio proposamena egingo du bere kasuan, eta hau Zaldibiako Udaleko osoko batzarrak onetsiko du.

23. art.- TABERNAKO SALNEURRIAK.

Legeak agintzen duen bezala, tabernak emango dituen zerbitzu eta produktu guztien salneurri edo prezioak publikoki agerian edonork ikusteko moduan egon beharko dute tabernan bertan. Indarrean dauden salneurrien berri emango Zaldibiako Udalari eta aldaketa bat dagoen bakoitzean, tabernako salneurrien taula eguneratu eta udalean erregistratuko da.

Horrez gain, legeak agindu bezala edozein zerbitzu edo produkturen salmenta xehetua jasotzen duen agiri/tikea eskaini beharko du beti esleipendunak. Bertan kontsumitutako zerbitzu edo produktuen zerrenda, hauen prezioa eta kantitatea agertu beharko direlarik.

Amaitzeko, bezeroen tipologia kontutan hartuta. Eskaintzen den otorduetako karta gutxienez paperezko euskarrian ere eskaini beharko da produktu bakoitzaren eskaintza eta prezioarekin.

24. art.- BETI GAZTE ELKARTEKO BAZKIDEENTZAKO HOBARIAK tabernako zerbitzu eta produktuen salneurrietan.

Zaldibiako Beti Gazte pentsiodun eta jubilatutako elkarteko bazkideek ondoren zehazturiko produktu eta zerbitzuetan hobari hauek izango dituzte.

- Freskagarriak/ura – hobaria %25
- Ardoak/sagardoak - hobaria %15
- Garagardoak – hobaria %15
- Kafeak/infusioak – hobaria %25
- Pintxoak/razioak/salda – hobaria %15

Hemen zehazturiko hobariak salbuetsita edo aldatuta geratuko dira ondorengoak: esleipendunak jarraipen batzordearen aurrean frogatzen badu, hobaria duen produktua eskuratzeko gutxieneko prezioa hobariak zehazturikoa baino handiagoa dela. Kasu horietan hobaria duen produktuaren erosketa kostuari %10 gehitu ahalko zaio.

Tabernako salneurrien taula berean txertatuko dira bazkideek dituzten prezioak, hobariak aplikatuta. Salneurriak eguneratzen diren heinean eguneratuko dira hobariak ere, eta honekin bazkideek prezioak.



25. art.- Hobariak eragina izan dezaten (24. art), Beti Gazteko bazkideen zerrenda tabernako esleipena egiten duenaren esku jarriko du jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak.

Zerrenda hau gehienez urtean lau aldiz eguneratuko da eta gutxienez behin. Zerrenda hau eguneratzen den bakoitzean, Beti Gazte elkarteak Zaldibiako Udaleko erregistroan sarrera emango dio bertan jasota geratu dadin.

Tabernariak zerrenda eskuan izanik, aukera izango du bazkidea dela egiaztatzeko bazkide txartela edo bestelako nortasun adierazleren bat eskatzeko.

26. art.- LUR ZORU PUBLIKOAN TERRAZA JARTZEKO AUKERA.

Gainerako taberna eta jatetxeek duten bezala, Beti Gazte tabernak ere lur zoru publikoan terraza jartzeko aukera izango du. Kokagunea, eremua, ordutegia eta gainerako xehetasunak Zaldibiako Udalak horretarako zehazturik duen ordenantzaren arabera emandako baimenean jasoko dira. Horretarako eskaera egitea esleipendunari dagokio.

27. art.- JARRAIPEN BATZORDEAREN OSAKETA.

Jarraipen batzordearen osaketa: Zaldibiako Alkatea edo honek proposaturiko udal ordezkaria, Beti Gazte elkarteko lehendakaria edo honek proposaturiko juntakidea eta esleipenduna edo honek proposaturiko ordezkaria izango dira batzordea osatuko dutenak.

Jarraipen batzordearen maiztasuna: gutxienez urtean bitan bilduko da eta gutxienez hiru ordezkarietatik bik parte hartu beharko dute bileran. Bertako akta baliokoa izan dadin udaletxeko sarrera erregistroan aurkeztuko da.

Jarraipen batzordearen erabakiak: gehiengo osoz hartuko dira erabakiak. Lokal publikoaren esleipenari eta udalari ekonomikoki eragiten dioten erabakietan ezinbestekoa izango da udal ordezkariaren adostasuna, gainerakoetan ez.

Jarraipen batzordearen funtzioak: tabernaren jardueratik eratorririko gai guztiak.

28. art.- BETI GAZTEKO BAZKIDEEN LEHENTASUNA

Taberna honetan ematen den zerbitzua, Beti Gazte Elkartearen beharrekin uztartzea izango da helburua eta horregatik, jubilatuek lehentasuna izango dute eta herritar guztiak ongi etorriak izango dira tabernan.

Tabernaren esplotazioa eta jubilatuen eguneroko martxaren artean talkarik balego, Jarraipen Batzordeari legokioke jubilatuen lehentasuna bermatzeko erabakiak hartzea.



29. art.- ESLEIPENAREN ETENA

Esleipendunak kontratua eten nahi izango balu bete beharreko baldintzak:

- Faktura guztiak ordainduta eta zorrik gabe uzten duenaren froga idatzia aurkeztu beharko du Jarraipen batzordean eta Zaldibiako Udalean.
- Hilabete lehenago idatziz jakinaraztea Jarraipen batzordeari eta Zaldibiako Udalari.
- Azpiegitura eta tresneria egoera egokian eta matxurarik gabe uztea.

Zaldibiako Udalak kontratua eten nahi izango balu bete beharreko baldintzak:

- FROGA urtearen baitan betiere, hilabete lehenago idatziz jakinarazi beharko dio esleipendunari.
- Gainerako kasuak Arau hauste edo ez-betetze atalean zehazten dira.

Kontratuaren etetea arau hausteak edo ez betetzeak medio:

Jarraipen batzordean aztertuko dira arau hauste eta baldintza ez betetzeak.

- Batzordearen proposamena azterturik Zaldibiako udalak arau haustearen tamaina neurtzea eta dagokion (balegokio) kalte ordaina edo neurriak hartzea.

Arau hausteak gertatzean beti idatziz jakinaraziko zaizkio esleipendunari. Honek aukera izango du udalaren aurrean bere iritzia azaldu eta defendatzeko. Aurrez aurre nahiz idatziz.

- Arau hauste larria errepikatuko balitz, Zaldibiako Udalak eskumen nahikoa du esleipen kontratua baliogabetu eta esleipen berria egiteko prozesua abian jarri ahal izateko. Hori gertatuko balitz, 15 eguneko epean utzi beharko luke esleipendunak taberna, ondoren zehazten diren baldintzetan:

- i. Esleipendunak faktura guztiak ordainduta eta zorrik gabe uzten duenaren froga idatzia aurkeztu beharko du Zaldibiako Udalean.
- ii. Zaldibiako udalak azpiegitura eta tresneria egoera egokian eta matxurarik gabe daudela ziurtatu beharko du.

30. art.- Agiri honetan jasotzen ez diren kasuetan:

Zaldibiako Udalak izango du azken hitza. Hala ere, Jarraipen Batzordean gaia mahai gaineratuko litzateke eta Jarraipen Batzordean hala baloratuko balitz Beti Gazte Elkarteko bazkideei galdetu lekieke Beti Gazteko juntaren oniritziarekin.

Zaldibian, 2021 azaroaren 11an



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNAREN
KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIAREN BALDINTZA PLEGUA
TEKNIKOA

BAR BETI GAZTE DE ZALDIBIA PLIEGOS TÉCNICOS DEL CONTRATO ADMINISTRATIVO ESPECIAL.

ART. 1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente documento es la contratación de la explotación, gestión y mantenimiento del bar Beti Gazte, sito en el bajo del Ayuntamiento, propiedad del Ayuntamiento de Zaldibia, para la prestación de los servicios de local social y bar-cafetería. Asimismo, se pondrá a disposición del adjudicatario el almacén y terraza correspondientes al edificio (se adjuntará plano).

El bar se compone de las siguientes zonas:

- Bar
- Cocina
- Almacén
- Vestuario
- Aseos

El objetivo será conciliar el servicio que se presta en este bar con las necesidades de la única Asociación de Jubilados de la localidad, Beti Gazte Elkartea. Por eso, los jubilados tendrán prioridad y todos los vecinos serán bienvenidos en el bar.

Art. 2.- DEBERES DEL ADJUDICATARIO

El servicio de explotación del bar conlleva las siguientes obligaciones:

- A) Limpieza de las instalaciones y útiles destinados al servicio de bar.
- B) Limpieza de las instalaciones y útiles de la sede del Hogar del Jubilado.
- C) Asistir a quienes no puedan llevar por sí mismos consumiciones a la mesa y terraza.
- D) Bar, cocina, Almacén, Vestuarios, Pasillo y Limpieza y mantenimiento de aseos.

Art. 3º. Plazos DEL CONTRATO Y LÍMITES:

El plazo del contrato será de un año desde la adjudicación definitiva, prorrogable anualmente con un límite de cinco años, salvo que cualquiera de las partes lo comunique con un mes de antelación. El límite de cinco años a propuesta de la comisión de seguimiento podrá ampliarse a diez años como máximo mediante prórroga anual.

Art. 4º.- CANON DEL CONTRATO:

El canon que el adjudicatario abonará al Ayuntamiento de Zaldibia, por la explotación de que se trate,

- 1º año: 100 €/ mes
- 2º año: 100 €/ mes
- 3º año: 100 €/ mes
- 4º año: 150 €/ mes
- 5º año: 150 €/ mes



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNAREN
KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIAREN BALDINTZA PLEGUA
TEKNIKOA

El pago se realizará en los 10 primeros días de ese mes. Quien adquiera el contrato permitirá al Ayuntamiento una cuenta corriente para poder cobrar el canon.

Art. 5º.- HORARIO:

Horario mínimo:

- De noviembre a abril: 10:00 – 22:00
- De mayo a octubre: 10:00 – 23:00

Horario máximo:

- La que, siendo competencia del Gobierno Vasco, determine la autoridad a la que se encomienda esta función.
- En el caso de la terraza, la que determine la ordenanza de terrazas del Ayuntamiento de Zaldibia.

Festivo semanal:

El adjudicatario podrá descansar un día de la semana que no sea festivo o víspera de fiesta entre el lunes y el jueves, cerrando el bar. Deberá proponer este día a la Comisión de Seguimiento (art. 30) con tiempo suficiente para informar a los clientes y llegar a un acuerdo.

Vacaciones: durante las 3 primeras semanas de agosto se podrá cerrar el bar.

Art. 6º. El adjudicatario deberá realizar directamente los trabajos a que se refiere el presente Contrato. No tendrá relación laboral alguna con el Ayuntamiento, tampoco con el personal que pudiera contratar, cuya afiliación a la Seguridad Social correrá a cargo del adjudicatario.

El adjudicatario deberá darse de alta en el Régimen Especial de Autónomos de la Seguridad Social, en el Impuesto de Actividades Económicas y en otros impuestos o tasas que le correspondan.

Art. 7º.- LOS SIGUIENTES GASTOS SERÁN DE CUENTA DE ADJUDICACIÓN:

- Reparación y reforma de recipientes de bar (bar, cocina, terraza, vestuario y almacén), aparatos electrodomésticos y mantenimiento y reparación de otros.
- Gastos de limpieza, electricidad, agua, gas, residuos y alcantarillado del bar y de la oficina de Beti Gazte.
- Cada dos años pintado/limpieza exhaustiva del bar (bar, cocina, vestuario, aseos, pasillo y almacén).

Art. 8º.- La adjudicataria estará obligada a prestar, durante la duración del contrato, un adecuado servicio y limpieza en todas las instalaciones, de acuerdo con las normas que a este respecto establezca el Ayuntamiento. Asimismo, deberá cumplir las disposiciones y normas sanitarias relativas y a los alimentos que se suministren en establecimientos abiertos al público



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNAREN
KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIAREN BALDINTZA PLEGUA
TEKNIKOA

Art. 9.- RESIDUOS,

Serán gestionados por el Adjudicatario en los términos establecidos por el Ayuntamiento en la normativa sobre esta materia.

Art. 10.- ORDEN INTERNO DEL FUNCIONAMIENTO DE LA TABERNA,

El horario de apertura y cierre, la limpieza y las condiciones sanitarias de los locales y servicios, podrán ser objeto de vigilancia y control por parte del Ayuntamiento, que podrá requerir al adjudicatario la información o documentación necesaria para la acreditación del cumplimiento de las necesidades de cualquier índole que se deriven de la actividad.

Si se advirtiese algún defecto se levantaría el acta correspondiente, apercibiéndole la primera vez por escrito y obligándole a indemnizar los perjuicios que pudieran derivarse, y la segunda vez se rescindiría el contrato, debiendo el adjudicatario abandonar el local sin derecho alguno dejando los enseres del mismo, sin que éste le eximiera de las responsabilidades que hubiera podido derivarse.

Si el Ayuntamiento acordara el cierre definitivo o definitivo del bar, el adjudicatario no tendrá derecho a indemnización o compensación de ningún tipo.

En caso de no abandonar el local, independientemente de la responsabilidad penal que pudiera derivarse, el ayuntamiento, por cualquier órgano, podrá utilizar medidas sancionadoras o de apremio para el cumplimiento de lo ordenado

Art. 11.- El adjudicatario no podrá ceder a un tercero sin autorización escrita del Ayuntamiento.

Art. 12.- El adjudicatario no podrá realizar las obras sin autorización escrita del Ayuntamiento.

Art. 13.- El adjudicatario responderá de cualquier perjuicio que se pudiera causar a las personas o cosas, aun cuando la actividad dependa o dependa del Ayuntamiento.

Art. 14.- El Ayuntamiento está obligado a asegurar los locales, sus instalaciones y mobiliario en las cantidades adecuadas.

Art. 15.- El Ayuntamiento podrá denunciar y dejar sin efecto el contrato en caso de incumplimiento de cualquiera de las condiciones establecidas en el presente pliego.

Asimismo, podrá exigir al adjudicatario la actualización de los pagos de las obligaciones económicas derivadas de esta contratación, con los recargos correspondientes de las deudas pendientes, que podrán ser cobradas por la vía de apremio.

Art. 16º. El contrato se extinguirá por el transcurso del tiempo señalado para la cesión, quedando obligado el adjudicatario a abandonar los locales que hubiere utilizado y los bienes adscritos a los mismos, quedando el Ayuntamiento facultado para acordar y proceder al vaciado del local.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNAREN
KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIAREN BALDINTZA PLEGUA
TEKNIKOA

Si hubiera prórroga del contrato, ésta también podrá extinguirse por renuncia del adjudicatario, dirigiendo un escrito al Ayuntamiento con tres meses de antelación.

Art. 17.- El Ayuntamiento resolverá cuantas dudas puedan surgir en la aplicación de los presentes Pliegos de Condiciones, regulándose el Contrato por las resoluciones que contengan los reglamentos de contratación y de bienes de los Ayuntamientos y por otras disposiciones vigentes, en lo no previsto en el presente Pliego.

Art. 18.- El Pliego de Condiciones y demás anexos podrán ser examinados en las oficinas municipales.

Art. 19.- CONOCIMIENTO Y USO DEL EUSKERA es obligatorio e imprescindible, así como por otras personas que vayan a trabajar en público.

Art. 20.- No se presentarán garantías provisionales por parte de los participantes.

Art. 21.- La garantía definitiva será de MIL (1.000,00) €.

Mediante esta garantía deberá responder del cumplimiento de las obligaciones del presente contrato.

La contratación municipal se devolverá con arreglo a las normas reglamentarias y disposiciones posteriores que pudieran modificarlas.

Art. 22.- Las personas interesadas en participar en el concurso presentarán sus propuestas en el plazo de 26 días hábiles, que serán analizadas por el Ayuntamiento. Una vez aplicados los baremos aprobados, realizará la propuesta de contratación en su caso, la cual será aprobada por el Pleno del Ayuntamiento de Zaldibia.

Art. 23º.- VENTA DE TABERNA.

Tal y como marca la ley, los precios de todos los servicios y productos que se presten deberán estar visibles públicamente en el propio bar. Se informará al Ayuntamiento de Zaldibia de los precios vigentes y cada vez que haya una modificación se actualizará el cuadro de precios del bar y se registrará en el ayuntamiento.

Adicionalmente, el adjudicatario deberá ofrecer siempre el documento/ticket en el que conste la venta detallada de cualquier servicio o producto en los términos legalmente establecidos. Relación de los servicios o productos consumidos, con indicación del precio y cantidad de los mismos.

Por último, teniendo en cuenta la tipología de clientes. La carta de comidas que se ofrezca deberá ofrecerse al menos en soporte papel con la oferta y precio de cada producto.

Art. 24.- MEJORAS PARA LOS SOCIOS DE BETI GAZTE ELKARTE en los precios de los servicios y productos del bar.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNAREN
KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIAREN BALDINTZA PLEGUA
TEKNIKOA

Los socios de la asociación de pensionistas y jubilados Beti Gazte de Zaldibia disfrutarán de las siguientes bonificaciones en los productos y servicios que a continuación se detallan.

- Refrescos/agua – Bonificación 25%
- Vinos/sidras – Bonificación 15%
- Cervezas – Bonificación 15%
- Cafés/infusiones – Bonificación 25%
- Pintxos/raciones/caldo – Bonificación 15%

Quedan exceptuadas o modificadas las bonificaciones aquí establecidas, cuando el adjudicatario acredite ante la Comisión de Seguimiento que el precio mínimo de adquisición del producto bonificado es superior al determinado por la bonificación. En estos casos la compra del producto bonificado podrá incrementarse en un 10% sobre el coste.

En el mismo cuadro de precios de bar se incluirán los precios de los socios con aplicación de bonificaciones. Las bonificaciones se actualizarán a medida que se vayan actualizando los precios y con ello los precios para los socios.

Art. 25.- Para la efectividad de las bonificaciones (art. 24), la Asociación de Jubilados y Pensionistas pondrá a disposición del adjudicatario del bar la relación de socios de Beti Gaztea.

Esta lista se actualizará como máximo cuatro veces al año y como mínimo una vez al año. Cada vez que se actualice esta lista, Beti Gazte dará entrada en el registro del Ayuntamiento de Zaldibia para su constancia.

Con la lista en la mano, el barman podrá solicitar el carnet de socio o cualquier otro tipo de identificación que acredite su condición de socio.

Art. 26.- OPCIÓN DE TERRAZA EN SUELO PÚBLICO.

Al igual que el resto de los bares y restaurantes, el bar Beti Gazte también tendrá la posibilidad de instalar terraza en suelo público. La ubicación, zona, horario y demás detalles se recogerán en la autorización otorgada por el Ayuntamiento de Zaldibia conforme a la ordenanza establecida al efecto. La solicitud corresponde al adjudicatario.

Art. 27.- COMPONENTE DE LA COMISIÓN DE SEGUIMIENTO.

Composición de la Comisión de Seguimiento, Alcalde de Zaldibia o representante municipal propuesto por éste, el Presidente de Beti Gazte o el juntero y adjudicatario el representante propuesto por éste.

Periodicidad de la comisión de seguimiento, que se reunirá al menos dos veces al año y en la que deberán participar al menos dos de los tres representantes. El acta se presentará para su validez en el registro de entrada del Ayuntamiento.

Acuerdos de la Comisión de Seguimiento: se adoptarán por mayoría absoluta. En los acuerdos que afecten económicamente a la adjudicación del local público y al ayuntamiento será imprescindible el acuerdo del representante municipal, no en el resto.



Funciones de la comisión de seguimiento: todas las cuestiones derivadas de la actividad del bar.

Art. 28.- PRIORIDAD DE LOS SOCIOS DE BETI-GAZTE ELKARTEA

El objetivo será compaginar el servicio que se presta en este bar con las necesidades de la Asociación Beti Gazte y por ello, los jubilados tendrán prioridad aun cuando todos los vecinos serán bienvenidos en el bar.

En caso de colisión entre la explotación del bar y la marcha diaria de los jubilados, correspondería a la Comisión de Seguimiento tomar decisiones para garantizar la prioridad de los jubilados.

Art. 29º - Suspensión DE LA ADJUDICACIÓN

Si el adjudicatario quiere suspender el contrato deberá:

- Presentar en la Comisión de Seguimiento y en el Ayuntamiento de Zaldibia una prueba escrita de que deja todas las facturas pagadas y sin deudas.
- Comunicar por escrito con un mes de antelación a la Comisión de Seguimiento y al Ayuntamiento de Zaldibia.
- Dejar la infraestructura y los equipos en buen estado y sin averías.

Condiciones para cumplir en el caso de que el Ayuntamiento de Zaldibia quisiera rescindir el contrato:

- En todo caso dentro del año probatorio deberá comunicarlo por escrito al adjudicatario con un mes de antelación.
- El resto de los supuestos se especifican en el apartado de Infracciones o Incumplimientos.

Suspensión del contrato por infracción o incumplimientos se analizarán en la Comisión de Seguimiento.

Valorar la magnitud de la infracción por parte del Ayuntamiento de Zaldibia a la vista de la propuesta de la Comisión y adoptar las indemnizaciones o medidas que procedan (en su caso).

Las infracciones se comunicarán siempre por escrito al adjudicatario. Éste tendrá la oportunidad de exponer y defender su opinión ante el ayuntamiento. Tanto en persona como por escrito.

En caso de reiteración de infracción grave, el Ayuntamiento de Zaldibia tiene competencia suficiente para resolver el contrato de adjudicación y poner en marcha el proceso de nueva adjudicación.

Si esto ocurriera, el adjudicatario deberá abandonar el bar en el plazo de 15 días, en las condiciones que a continuación se detallan:1.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

ZALDIBIAKO BETI GAZTE TABERNAREN
KONTRATU ADMINISTRATIBO BEREZIAREN BALDINTZA PLEGUA
TEKNIKOA

- El adjudicatario deberá presentar en el Ayuntamiento de Zaldibia prueba escrita de que deja pagadas y sin deudas todas las facturas.I.
- El Ayuntamiento de Zaldibia se asegurará de que la infraestructura y los equipos se encuentren en buen estado y sin averías.

Art. 30.- En los casos no contemplados en el presente documento:

El Ayuntamiento de Zaldibia tendrá la última palabra.

No obstante, en la Comisión de Seguimiento se plantearía el tema y si así se valorara en la Comisión de Seguimiento se podría consultar a los socios de Beti Gazte Elkarte con el visto bueno de la Junta de Beti Gaztea.

Zaldibia, 11 de octubre de 2021